

bidegileak



Salvatore Mitxelena (1919-1965)


Egilea:

IMANOL UNZURRUNZAGA



«Salbatore Mitxelena dugu gerraosteko euskal minaren adierazlerik nabarmenena eta fidagarriena. Euskal Herriaren bidegurutze (eta guruzbide) horretantxe egingo da Salbatore idazle eta gerra ondoko krisiak girotuko du bere idaz-bizitza guztia» (Juan Mari Torrealdai, *Jakin* sorta 2, 1970).

«Herriaren agonian egin zen Salbatore gizon eta poeta. Hor sortu zitzaion herri honen bizi-nahia etsipenez kantatu beharra [...]. Herri baten samina, esperantza, desesperazioa, maitasuna, gorrotoa, fedea [...] ari zaigu Salbatore Mitxelenaren poesian.» (Joxe Azurmendi, *Jakin* sorta 2, 1970).



Salbatore Mitxelena (1919-1965)

Gazterik joana zen Lizardi; are gazteago fusilatua Lauaxeta. Giro honetan hartu zuen Salbatore Mitxelena gazteak euskal poesiaren testigutza eta bera izan zen urte latz haietan, Juan San Martinen hitzetan: «literaturaren erlojuak martxan jarri ziguna».

«Amaren bila doana doa Jainko beragana»

Salbatore Mitxelena Zarautzen, Inurritza auzoko *Etxebeltz* baserrian jaio zen 1919ko urtarrilaren 18an. Giroa fedetsua eta euskaldun peto-petoa zen artean herrian bezala auzoan eta, nola ez!, *Etxebeltzen*. Aitona bertsolari eta bertsozale iaioa omen zen; nahiz eta plazarik plaza ibilia izan ez, *Etxebeltzen* sarri entzuten ziren bertsoak, zaharrak eta berriak. Etxeko sukaldea izan zen Salba-

toreren lehen eskola kristau fedean eta euskaltzaletasunean. Kristau zintzoak, Mitxelena-tarrak; osaba bi frantziskotar, izeko eta arreba bi moja klarisa eta anaia zaharrena, Antonio, Salbatore baino bi urte lehenago sartu zen Arantzazuko Seminarioan eta bertan hil zen gazterik 1947an.

Hiru urte Arantzazun eta bi Foruan egin zituen Salbatore mutikoak, 1930etik 1935era. Aita Villasante ikasleakideak kontatzen digu 12–13 urterekin Arantzazun Salbatore bihu-



San Pelaioeren ermita Inurritza auzoan



Jose Maria Mitxelena Irigoien eta Maria Calixta Lazkano
Leizaola, Salbatore Mitxelenaren gurasoak

rri portatzen zela; seminarioko arduradunekin disgustuak, ezinkonponduak eta zigorrak sarri izaten zituela... «eta zergatik hori? Irakasle eta arduradun horien aurrean bere ikuspuntuak sostengatzen burugorria zelako, amore ematen ez zekielako, eta abar [...]. Ez dakit nola ez zuten etxera bialdu edo nola ez zen bera joan», diosku Villasantek. Gero inoiz aitortuko zuen Salbatorek berak amari zor



«Gure Etxebeltz baserria. Ondo gogoan edukia...» (1942-VIII-9)

zion maitasun eta errespetuagatik jarraitu zuela seminarioan. 14 urte zituela, Foruan olerkiak idazten hasi zen. «Urte haietan bera genuen gure inguruan euskaltzale bakarra, euskaraz idazten zekien bakarra eta halako harridura batekin begiratzen genion [...].»

Hamabost urterekin Foruan ikasle zela, istri-puz hil zitzaion ama, oso gazterik. «Zer zorion daukaten ama badutenak!» egin zuen intziri. Betidanik izan zuen amak eragin handia Salbatorerengan eta heriotza honek utzitako zauria eta hutsunea ez zitzaion bizitza osoan sendatu. Ama hil berriari idatzitako olerkitik lerro hauek:

Zu hiltzean baserriak
Lore bat galdu zun;
Ta izar eder bat piztu
Zeruan zitzaigun.

«Frantziskotar 16 urterekin»

ma hil eta gutxira, 1935ean, Zarautzen jantzi zuen frantziskotarren abitua. Gazte urduria, nerbio hutsa, pazientzia gutxikoa, azkarra eta burutsua deskribatzen digute garai hartako bere lagunek Salvatore gaztea. Arimaz, dohain ederren jabea, adimen azkar eta argikoa, irudimen aberatsa eta lotu ezinekoa, bihotz eta sentipen sakon sarkorreakoa.

Salbatorek berak ere idatzita utzi dizkigu urte haietako sentipenak. Honela dio «Frantziskotar 16 urterekin» olerkiaren lehen estrofan:

Esku zabalik deika hiltzen zauden
Jesu: anai zaitzadan, lagun arren
Zure nekalkide egin nadin aurten...
Zurekin bat eginda nik atsedan!



Salvatore Mitxelena, hamaika urtez,
Jaunartze Nagusia egin zuenean

«Aberriak min dit»

Salbatore Mitxelena-ren obra gerra-obra dela esan da. Gerrak, izan ere, aztarna sakona eta zauri sendagaitza utzi zuen hamazazpi urteko gaztetxo kezkatu, bihurri, etsigaitz haren gain, Salbatore idazle eta poeta hasiberriaren gain.

Nafarroan, Oliteko seminarioan, harrapatu zuen gerrak Salbatore. Halaber, filosofia ikasketak utzi eta armadara joan behar izan zuen. Aita Agirretxe, lagun eta ikaskideak, deskribatzen digu orduko giroa: «[...] Gaztetasunaren hasiera-hasieran etorri zitzaigun gerra hura [...]. Bat-batean ingurua erabat zoratu balitzaigu bezala, mundua erdi bitan zatituta agertzen zitzaigun: batetik zuriak, eta beltzak (gorriak) bestetik. Tartean guk, prailekume berriok, geure burua beltzen (gorrien) artean ikusten genuen; zuriaren artean izan behar, ordea, anatematismo gogorretatik libratu nahi bagenun. Nonahiko eleiz, pulpitu, irrati eta bazter guztietatik zuriak zerurako zirela aldarrika [...] beltzak, berriz [...]. Baina gu, Mitxelena eta beste batzuk, ezin zuri haie-tako izan!»

Salbatore gaztea, 11 urterekin familia, base-ria eta herria utzita, amaren eskutik Arantzazura joandako mutikoa, orain 18 konplitu gabe, fraidekume bihurtu eta gerra zitalak harrapatu du bere atzaparretan. Mundua gertutik ezagutzeko parada bortitza, esperientzia garrantza. Gerrak zartada izugarria sartu zion

bihotzean eta Euskal Herriaren gain maitasuna sendotuarazi. *Aberriak min dit eta minak olerki!* sasoi hartako bihozkadaren oihua dugu. Ez fraide, ez soldadu, derrigorrean seminarioa eta ikasketak utzi eta kuartelik kuartel, fronte batetik bestera ibili zuten, gerra amaitu eta berriro 1939an Olitean itzuli zen arte.



1935ean hil zen istripuz Salbatoreren ama.
«Zer zorian duten
Ama badutenak!
Banun nik ere lehen;
Eraman dit Jaunak.»
(1936)

Barru minbera

Barru minberatuarekin itzuli zen Salvatore komentura, filosofia eta teologia ikastera. Berak idatzitako esaldi hauek laburbiltzen digute gerra bizi izan duen euskal poeta gaztearen sentipena: «Euskaldungoa zapalduta geratu da faxismoaren azpian... Euskotar jaiotza, beste gabe, delitu dugu eta euskaldun irautea areago [...]. Herri gurtzifikatua, burlatua, kulpatua, agota hau, Euskadi! [...]. Isaiarena eskatzen zidan barrenak: gurutzera eramaten duten horren (Euskal Herriaren) heriotza aldarrika»...

Mutikotan bihurri eta hezigaitz portatu bazen, orain soldadutzatik seminariora itzultza, Salvatore gaztea are gutxiago moldatzen zen filosofia eta teologia irakasleen esanetara eta irakatsietara. Bere kabuz eta bere bidetik ikertzea gustatzen zitzaion, testu liburuetara lotu gabe. Debekatuak zeudenak ere, ezkutukoak ere irakurtzen zituen. Gizakiaren liber-



Mitxelena anaiak, Antonio eta Salvatore, Seminarioan



Foruako Seminarioan 1935ean Salvatorek eskuz idatzitako olerkiaren lehen bertsoak

taterik ezak biziki kezkatu eduki zuen. Eskritura Sainduen azalpen dogmatiko heresia ez zitzaion batere atsegin. Razionalisten objektioei erantzuteko Elizak asmatutakoa «defentsa hutsezko sistema» zela ohartzen zen eta Erromako doktrinari, beste gabe, amen esan eta lasai geratzen diren horietakoa ez zen, inondik ere. «Berrogei urte berandua go jaio izan balitz ez zuen hark sufritu zuen guztia sufritu izango [...]» idatzita utzi digu A. Agirretzek.

«Oroitzen naiz behin –Villasantek dio– teologia ikasle ginela, Arantzazutik aurrez aurre dagoen arkaitz hartara joan ginela. Hango ikuspegi ederra ikusten gaudela, hara hitzetik hortzera zer ateratzen zaion: *Hemendik begiraturik komentu horrek paradisu zoragarri bat dirudi, ez luke inork esango kartzela bat dela.*»

«Zuk zer dezu, Arantzazu?»

Gerraosteko erreminaren hondarretan, hala ere, Arantzazu izan zuen Salbatorek babesleku. Santutegiko kristau herri giroa inspirazio iturri emankorra izan zen berarentzat. Euskal Herriko bazter guztietatik erromes taldeak biltzen ziren Andre Mariaren aurrean otoitz egitera. Erromesaldien giroa erabat euskalduna eta gehienbat euskaltzalea zen liturgian bezala elizatik kanpoko atsedendian ere. Arantzazu euskaltzaleen aterpe bihurtu zen urte latz haietan.

Hego Euskal Herrian gerraostean euskaraz argitaratutako lehen liburua S. Mitxelenaren *Arantzazu, Euskal Poema* izan zen. 1949an plazaratu zen, A. Xabier de Eulatek bikain apainduta. Hamahiru urteko ilunaldi luzearen ondoren, argi xume eta apala gaurtik ikusita, baina une hartan ildo berriaren urratzea izan zen, euskal kulturaren giroan ilusio handiz hartua.

Arantzazun teologia ikasten ari zela hasi eta ia bukatu zuen Salbatorek Poema. Teologoaren maisuak esaten omen zion: «Poema idaztea xamurra duk; bizitzako poema egiten ikasi behar duk hik!»...

Poema idazteko, Arantzazuko bibliotekan bertako kronikak, historia, kantutegia, ohiturak... irakurri eta sakon aztertu zituen. Arantzazuko ele zaharrak miatu eta hausnartu eta poliki-poliki maitasun handiz, asmamen aberatsez eta bihotzondo indartsuz Poemaren lehenengo eta bigarren atalak burutu zituen.



Arantzazu Euskal Poema (1949), gerra ostean Euskal Herrian argitaratutako lehen euskal liburua



Ama-semeak (1951) Arantzazu eta Euskal Herriaren zorikidetzaren Historian

Urte haietan Salbatoreren inguruan ikasle talde batek Bai euskal aldizkari erdi klandestinoa sortu zuen; eskuz idatzia, eskutik eskura ezkutuan pasatzen zen, seminariotik irten



"BAI" taldeko teologoak Arantzazuko mendietan

gabe. Gero euskal idazle sonatuak izan diren zenbaitengan eragin handia izan zuen Salbatore Mitxelenak. Garaitsu hartakoak ditugu Arantzazun ikaslekide, Garate, Omaetxebarria, Garmendia, Berriatua, Kandido Izagirre, Alustiza, Kandido Zubizarreta, Agirretxe, Villasante, Iturria, Gandarias... Handik urte gutxira Sorarrain, Gandiaga, Bilbao... eta geroxeago (1956) *Jakin* sortu zuen taldea.

Poemaren hirugarren atala, *Bizi nahi*, mezaberrria eman eta gero Donostian ondu zuen. Artean hemen publikatu ezina, *Euzko Gogoa* atzerriko euskal aldizkarian agertu zen 1955ean. Poemaren atalik hoberena, lortuena, helduena, biribilena, deigarriena zela diote garai hartako kritikoek.

Egoera delikatua zen. Odol beroa zerien oraindik gerrak herrian utzitako zauriei. Inor mindu gabe, «politika guztien azpitik eta alderdikeria guztien gaintik, euskaltasunari eutsi nahi dio batasunaren bila.» Erdalakeria euskaltasunari, alderdikeria batasunari nagusitu zaio... Hildakotzat dute askok Euskal Herria. Horregatik Salbatorek hain berea duen bizi nahia txertatu nahi dio herriari Arantzazu *Euskal Poema*-ren hirugarren atalean.

«Salbatoreren lana Arantzazuren Historia oleriti bihurtzea izan zen –diosku Joseba Intxaustik– Santutegiari epika mistiko herriarra emanez.» Poeman zehar eta harrezkero lan ia guztietan Arantzazu eta Euskal Herri-

aren zorikidetza eta paralelismoa nabarmen-tzen da Salbatoreren obran. Herri honen sin-bolo bihurtzen du Arantzazu. Arantzazuren ilunabarra Euskal Herriaren ilunabarra izango da eta Arantzazuren urre garaia Euskal Herriarena: «Nornahik antzematen du Aran-tzazuk eta Euskal Herriak bost mendeotan

elkarrekin izan duten zorikidetza eta harre-mana».

Gure Euskalerrri eta

Gure Arantzazu

Zori berak behinbeti

Ziñuzten uztartu.



Arantzazu, Salbatore teologia ikasten ari zeneko garaian (1938)

Ama-semeak Arantzazuko kondairan

ita Probintzialak eskatu zion Arantzazuko kondaira euskaraz idazteko eta lan honetarako Zarauzko komentura erretiratu zen 1951n. Bi hilabeten burutu zuen lana: «Ama-semeak Arantzazuko kondairan». Liburuaren hitzaurrean hauek dira lehen hitzak: «Liburu honek honela behar zukeen titulua: «Guztion Ama edo Arantzazuko kondairaren euskal sentidua, elezaharrak lagun». Izenbururako luzetxo, nonbait, baina labur, argi eta zehatz azaltzen digu egileak hitz horietan liburuaren muina: euskaldun guztion Santuario nagusia izan da Arantzazu, ez Gipuzkoakoa bakarrik, euskaldun guztiona baizik. Han-hemengo erroman-



Euskal Herrian misiolari ibili zenean arazoak izan zituen Salbatorek Eliz eta Herri agintariekin

tze zaharrak oinarritzat hartuz liburuan zehar tesi hau frogatzen saiatuko da Salbatore: *Euskal Herria oso-osorik kantari dijoakizu...*

Sermolari sutsua

Apaizberritan Donostian frantziskotarrek Atotxan duten komentura bidali zuten eta 1954ra arte han bizi izan zen. Hizlari eta misiolari ospetsua izan zen Gipuzkoako eta Nafarroako pulpitueta, batez ere, Agirretxe, Garmendia, Aranguren, Lasa eta abarrekin batera. Arantzazuren bosgarren mendeurrena ospatu berri dugunean, ezin aipatu gabe utzi Euskal Herria Arantzazura begira jartzen sermolari eta misiolari horiek egindako lan handia. Sermoigintzan oraindik ere antzinako gaiak, esamoldeak eta estiloa nagusi zirenean, Mitxelena misiolari gazte, aurrerakoi, ausarta agertzen zen, Kontzilio Vatikanoko II. ari arnasa orduz aurretik hartu izan balio bezala.



Salbatore apaizberritan

«Benetakoa izatea zuen gogokoen –kontatzen digu Karmelo Iturria lagunzahar minak–, praille eta apaiz bizitzan, pulpitoan bezala eguneroko bizimodu arruntean benetakoa izatea. Pulpitoan erakusten zuena bizitzan betetzen saiatzen zen...»

Benetako izate horri gizatasuna, zintasuna deitzen dio Salbatorek. Bere buruari bezala herriari eta Elizari ere eskatzen zien zintasun hori. Eliza ofizialaren erakunde eta eraikuntza zenbaiten aurrean kritiko zorrotz agertu zen; jardunbide triunfalistaren eta estruktura itxien etsai amorratua zen. Kritika hori ez zen, nonbait, askoren gustuko. Salatua ere izan zen behin baino gehiagotan eta garai hartako euskaltzale eta lagun askoren iritzi eta aholkuen kontra Ameriketara joatea erabaki zuen.



Arantzazu (2001) Frantziskotarrak bertara etorri zirela 500. urteurrenean

Ameriketara

Salbatorek berak aitortzen digu berezkoa zuela urrun mina: «Aspalditik lehia nuen hura, azkenean ta beharrago jotzen nuen hura, egun gutxi barru iritxiko diat, Jainkoa lagun. Bani-joak Ameriketara [...]» idazten dio Karmelo Iturriari 1954ko urriaren 23an *Arraun ta Amets* liburuaren hitzaurreerako.

Liburu honetan agertzen diren olerkiak 16 urte zituenetik 22ra bitartean idatzi zituen:



«Azkenean eta beharrago jotzen nuen Ameriketara joateal!»
«Han ere lanean jarraituko dut nik!»

«gaztezaroko sentierak eta bihozkadak» deitzen die Salbatorek, «orduko poz, min, gogai, kezka, axolak». 1937tik 1943ra bitartean egin-dako idazlanak dira, *Aberriak min dit* izenpean bilduak; Salbatore gaztearen lanak dira, gehienak olerkiak. Gaiaren aldetik eta euskararenetik idazle hasiberriaren zantzuak nabari ditu baina, aldi berean, euskal sustrai jatorreko agertzen zaigu; jatorrizko eskuizkribu zirriborrotuak zuzenketaz goi eta behe josituta, irakurtezin daude. Bere izaerari lotuta, idazterakoan ere beti izan zen perfekzionista, kontentagaitza, behin eta berriz olerkiak eta




«Urrunago ta maiteago dik gizonak Herria»

lanak orrazten eta hobetzen. Etorri jorikoa zen baina ez zen bat-batekoaz inoiz asetzen. Hobetu ahaleginean ez zuen atsedetik hartzen, noizbait idatzitakoa urteetara ere berri-datziz eta zuzenduz.

Kulixka Sorta-ren 7-8 zenbakiekin argitaratu zen *Arraun ta Amets*, 1955ean. Hitzaurreko gutun horretan bertan aipatzen dio K. Iturriari *Aboz-abo*, erromantzei buruzko prosa liburua esku artean lantzen ari zela, azken kapituluaren faltan. Osatuta, handik urtebetera

igorriko omen ziola argitaratzeko prest, «Itxaropenaruntz apapa». 1960an Kubako iraultza bertan bizi izatea tokatu zitzaion Salbatoreri; etxeren batean gordeta, galdutzat eman ziren urteetan liburu honen jatorrizko folioak. Idazlan Guztien 2. Tomoan, agertzen da, halere, *Aboz abo* Arantzazuko Kanta Zaharren bilduma guztiz interesgarria.

Urte horietakoa dugu, halaber, *Hogei kanta Arantzazuko*, sasoi horretan bertso eta kantu-rako, musika eta guzti, oso erabilia.



Bere buruarekin ere kritiko zorrotza zen Salbatore, eta idazterakoan perfektionista. Ikusi besterik ez dago nola utzi zituen eskuz behin eta berriz zuzendutako folio zirriborrotsuak

Atzerrian ere euskaraz idazten

Ameriketara luma behin eta betiko herdoiltzen utziko ote zuen beldur zen jendea hemen, baina Salvatorek «hemen adina, gutxienez» han ere euskararen alde egin zeza-keela ez zuen zalantzarik.

Don Manuel Lekuonak kontatzen digu hitz gutxitan Salvatore agur esatera etorri zitzaio-nekoa:

— Don Manuel, han ere nik lanean jarraitu-ko dut! –zioen Salvatorek.

Eta nik erantzun:

— Han!... Baina hemen guk Arantzazu Poemaren egilea palta...

...Eta eztarrian korapilo bat biori...

Askok pentsatu zuten Don Manuelek bezala. Salvatorek, ordea, ez zion idazteari utzi azke-nera arte. «Urrunago ta maiteago dik gizonak herria» esan ohi zuen.

Zortzi urte eman zituen Ameriketara, 1954tik 1962ra, Erdi eta Hego Ameriketako Erre-publiketara: Uruguaytik hasi eta Bolivia, Ekuador, Peru, Kolonbia, Kuba, Panama, El


Salvador, Costa Rica... misiolari talde ibiltari batekin han-hemenka misioak ematen. Hizlari trebe, ausart, bikainenetakoa azaldu zen han ere. *Time* Ameriketako astekariak erreporta-je bat egin zuen misio haiei buruz eta aldizka-riaren azaleko argazkian Salvatore agertzen da sutsu eta bero sermoigintzan.

Urte haietan egindako lanari zor diogu *Herri bat guruzbidean* eta *Confixus*. Biek liburu bat bera osatzen dute. Ameriketara (1960-1962) burututako antzerkiak dira. Euskal Herria-ren Kalbarioa, Euskal Agoniaren Guruzbidea agertzen zaigu formatu berrian landuta. Olerkia, musika herrikoia, bertsoa, elkarrizketak... biltzen ditu antzerki lan honetan, herria-ren egoera samina adierazi nahian. Patxi Eskudero, maisu eta adiskidearen musikaz jantzita, gure herrietako elizetan edota plazetan noizbait antzeztu ahal izatea zuen amets Salvatorek. Ameriketatik itzuli zenean Karmelo eta Salvatore, biak joan ziren Zaratzen Eskuderoren etxera. Dramaren muina azaldu ziotenean, Maisua txundituta gelditu zen eta material horrekin opera moduko poema zoragarria egin zitekeela esan zien.

Unamuno eta Abendats

1957ko Urteberritan Itxaropenako Patxi Unzurrunzaga aspaldiko lagunari idazten dio Salbatorek: «Montebideora nintzanean liburu bat idatzi nian, prosan, Unamunoren gainean. A ze pozik argitaratuko nukeen hire moldiztegian [...] baina horko “nagusien” kontrako liburua dek hasi ta bukatzeraino [...]».

Ameriketan umotutako entsegu lana dugu *Unamuno eta Abendats*. Gaztetatik zuen oso gogoko Salbatorek filosofo bilbotarra. Oriten, soldadutzatik bueltan, irakurriak zituen Unamunoren obrarik esanguratsuenak, handik urte batzuetara Elizak irakurtzea debekatuko zituenak, hain zuzen. Horretan ere, Kontzilioan bezala, Salbatore bihurriak Elizari aurrea hartu!




Unamuno ta Abendats (1958)
Montevideon idatzia eta egilearen izenik gabe Baionan argitaratua

Unamuno irakurtzeak eta hausnartzeak fede kontuan arazoak ekarri zizkion fraide gazteari. Lanak eman zizkion Kontzilio Vatikano II.aren aurreko eliz hierarkiaren sineste eskakizun estu eta gogorak («fede itsuaren erokeria» deitzen zion berak), baina funtsean sakon eta tinko eutsi zion barruko sinesmenari eta apaiz lanari egoki baino egokiago lotu zitzaion Euskal Herrian bezala Ameriketan eta Suitzan azkenera arte.

«Pentsakorra eta razionalista» deskribatzen du Torrealdaik Salbatore. Sakonera jotzen zuena, itxurarekin fidatzen ez zena, benetako, gizon, azalekoaren etsai amorratua azaldu dugu guk ere orri hauetan. «Praile jostalaria» deitzen dio Nemesio Etxanizek. Unamunok eta Mitxelenak bazutela biok elkarren nolabaiteko antza, batek baino gehiagok esan du. Bizi nahiak besarkatzen ditu estuki Unamuno eta Abendats. Bere egiten du Salbatorek bilbotarraren sentipen larria:

Ez, eztugu hil nahi! Eztugu nahi izaterik ere nahi! Beti eta beti bizi nahi dugu! Beti bizi eta gu bizi! Gu hauxe! Gerauxe!... Horregatik gauzka hain larriminez Arimaren iraunkizunak, betiraun goseak, min eta min...

Hona bada, Salbatore Mitxelena, orain arte olerkari, prosagile eta dramaturgo bikain azaldu zena orain saiakerari emana. Migel de Unamuno Elizak kondenatuta zegoenean eta euskararen etsai amorratutzat jotzen zenean, gure fraide bihurria frogatzen saiatuko da



Salbatorek berak moldatzen zituen bere bertso, olerki eta antzezlanetarako doinuak

erlijioaren kezka jatorra bizi izan zuela bilbotarrak eta barru-barrutik euskaltzalea ere bazela. Edonon arrotz, alegia. Jainkozaleegi materialistek maitetzeko. Euskaldunegi espainiarrekin mamitzeko.

Unamunoren fedea azaltzeko, beste hainbaten artean, Marañoñ adiskideak 1954an idatzitakoa dakarkigu:

Yo no sé, porque no soy teólogo, si se ajustó siempre al rigor de la ortodoxia, pero sí sé, y lo digo, que no he conocido a ningún otro hombre en el que esa presencia de Dios haya tenido tan permanente y terrible realidad.

Bilboko filosofoaren barru-barruko euskaltasuna frogatzeko, besteak beste, bizitzaren azkenetan D. Emiliano de Arriagari idatzitako gutunaren zati hunkigarri hau agertzen digu Abendats-ek:

Yo he escrito poco en vascuence, por ser su conocimiento y uso para mí adquirido y reflejo; me he dedicado más bien a estudiarlo como lingüista. Hoy siento de nuevo amor hacia él y he vuelto a su cultivo. Yo no sé por qué será, tal vez que entro en la verdadera madurez, y con cuatro hijos ya, pero siento en mí una gran evolución de ideas y que hundiéndose cuanto tenía de negativo, me completo y arreglo.

Kristautasunean bezala euskaltasunean ere, Unamunok bere ajeak dituela dio Salba-

torek... «Eta nork ez? Kristautasunean erroa
topa diogu koloka. Euskaltasunean erroa du
zindoan, jatorren, aberatsen...».

Bere *Diario íntimo*-n Unamunok utzitako oler-
kiaren lerroak ditugu hurrengo hauek, Ne-
mesio Etxanizek euskaratuta:

Nik ixilik gorde nahi dudana
Utzi bezaidate geldirik
Ez dezadala argitara atera behar izan
Nere barneko leize ezkuturik.
Hau da, izan ere, ezkutuko gizona
Eta beste hau agirikoa.
Eta ez dut nahi «naizen hau»
Inoren esan gai eginda ikusterik



Espainiatik Suitzara langile joandakoen zerbitzari

Eta honela dio bilbotarrak beste batean:

Yo soy mi pueblo.
Que uno es el hombre de todos
Y otro el hombre de secreto

Eta Salvatore saiatu zitzaigun ezkutukoa argi-
tara atera eta Unamuno kristau sutsu eta
euskaltzale agertzen.

Salvatore olerkari, idazle, saiolari, antzerkigile
eta hizlari bikain aurkeztu dugu orriotan eta
horretarako bere ikaskide eta lagun hain-
bat testigutza ekarri ditugu hona.

Azken urteak Suitzan eman zituen, bertara
langile joandako espainiarren kapeilau; kapei-



Lantxo honen egilearekin Suitzan 1965eko uztailan

lau baino laguntzaile, aholkulari, morroi esango nuke nik, langile xume horien beharrezanetara makurtuta eman baitzituen azken hiruzpalau urteak *La Chaux de Fonds*-en apalki, bere obraren berri inortxok ere ez zekien atzerri urrunean, atzerriratuen zerbitzari.

Suitzar batzuk, halere, ohartu ziren fraide euskaldun honen adimen argiaz eta giza mailaz. Lucien Schwob pintore eta arte historialari ospetsuarekin ordu luzeak eman zituen Salvatorek solasean.

Salvatore hil ondoren, Lucien Schwobek idatzitako artikulutik lerro batzuk aldatuko ditut hona, amaiera gisa:

«Nire jaioterri La Chaux de Fonds-era heldu ziren espainiar langileen apaiz eta aita zen Salvatore Mitxelena [...]. Halakoxea zen bera: gorputzez ez handi eta ez txiki ere; beltzarana, begiak sakon bezain bizi [...]. Baina Eukaristian aldarera agertzen zitzaigunean itxuraldatze mirakulosua gertatzen zen gizon harengan [...]. Aldarean agertu bezain laster



Zarauzko Ikastolak Salvatore Mitxelenaren oroitzapena bizirik mantentzen du Iñurritzan eta herrian



«Itsasertzean Zarautza,
Pagoetaren gain gurutza...» (1942-VIII-9)

berrogeiren bat zentimetro altuago aurkezten zitzaigun. Horrela, izkutuko sinesmen gizona haundiagoa zen beragan ekintza gizona baino [...]

[...] Oraindik ere tristura sakonez datorkit burura azkenengoz elkar ikusi genuen egun hura. Bere osasunaz galdetu nion. Larritasun gordea irakurtzen nion aurpegian. “Oraindik gaztea zara –niotsan nik– 47 urte baino ez; nire aldean gazte.” Biziki harritu ninduen haren erantzunak: “Bai, noski, baina nik baino

arteria hobeak dituzu zuk.” Hurrengo igandean hil-zorian ikusi nuen izaki erori eta galdu hura kasuiladun apaiz sendo eta sutsu haren-gandik oso urruti zegoen.

Halaxe urtu ziren Aita Salvatore Mitxelenauren urteak; bere izate sendoaren eta bere jardun joriaren fruitutak nunahi zabalduaz. Horrelaxe.»

Salbatoreren gorpua Zarautzera ekarri zuten 1965eko Gabon bezperatan. Bere herriaren agur omena jaso ondoren Arantzazuko

Andra Mariaren oinetan lur eman zitzaion.
Ama zenari berak gaztetan idatzitako olerkia-
ren lehen hitzak agertzen dira Salbatoreren
hileta oroigarrian:

Lurrean lore zinan
Lore garbi lirain,
Zeruan izar zera
Izar argi orain.



Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka honen material grafikoa ondorengoei esker lortu du:

- *Agustina Mitxelena eta familia*
- *Arantzazuko, Donostiako eta Zarauzko Frantziskotarrak*
- *Itxaropena Argitaldaria*

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: I.a, 2002ko abendua

Ale-kopurua: 2.500

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Donostia-San Sebastián, I - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Joseba Olalde

Fotokonposizioa: E.P.S., S.L.
Herminio Madinabeitia, 18 - Pab. 3 - 01006 Vitoria-Gasteiz

Inprimaketa: Gráficas Santamaría, S.A.
Bekolarra, 4 - 01010 Vitoria-Gasteiz

ISBN: 84-457-1866-5 (Lan osoarena)
84-457-1868-1

L.G.: VI-555/02

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística